

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Alazne Azkue Erostarbe

*Donostia,
Gipuzkoa
(1936)*

Aurkibidea



Biografia



Donostiarra, Amarako Agerre baserrian jaioa. Primi Erostarbe (1907-1995) panderojole eta irrintzilariaren alaba nagusia da. Hari buruz hitz egin du batez ere: Oñatiko Araotz auzoan jaioa, Martuteneko taberna batera joan zen lanera gaztetan; hamar urte egin zituen bertan, eta ondoren Agerrera ezkondu zen. Merenderoa ere bazen Agerre. Handik Loiolara joan zen bizitzera, eta ondoren Amara Zaharrera. Primi senarrarekin eta bost seme-alabekin joaten zen hara eta hona, panderoa jotzera. Soinujole ezagunekin aritzen zen eta irrintzi lehiaketa denak irabazten zituen. Baserritik hirigunera lekualdatzean seme-alaba gehienek euskara galdu zuten. Alazne da hala-nola euskara gorde duen bakarra.

Zintak

DON-008

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-09-09
- **Iraupena:** 39 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

Pasarteak

1. Agerre baserria nolakoa den

- **Erref:** DON-008/002
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:00:42. **Bukatu:** 00:02:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

1936. urtean jaio zen Agerre baserrian. Baserrian nolako zen azaltzen digu.

2. Umetatik erromeria batetik bestera

- **Erref:** DON-008/004
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:02:47. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Agerre baserrian oso ondo bizi ziren. Gurasoek lan asko egiten zuten eta pozik bizi ziren, ez zuten desberdintzen zein zen aberatsa eta zein ez. Gero hirira jaitsi ziren. Beti trikitia zegoen tartean, erromeria batetik bestera joaten ziren. Amak panderoa jo eta irrintzia botatzen zuen.</p>

Transkripzioa

Ba oroitzapenak dia baserrian oso ondo bizi giñela. Lan asko iten zuten gurasoak, baiño, ez dakit, han ez giñen konturatzen pobreak eta aberatsak zaudela jendea ta han ondo bizi giñen. Eta pozik. Eta gero hirira jeitsi giñen eta hemen, hirian, ba, ondo. Aitak´e lana iten zun, amak´e lana iten zun. Baiño beti trikitixa erdian. Hor erdian beti erromeri batetik bestera gurasoakin juten giñen. Amak pandereta jotzen zun. Beti jendiak eskatu iten zion irrintziak. Eta irrintzi zoragarriak iten zitun. Eta oso ondo bizi giñen. Oso ondo. Oso alaiak denok. Denok pozik, denok kontentu. Gurasoak oso onak oso onak zien.

3. Euskaraz egiteagatik arazoak

- **Erref:** DON-008/006
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:05:19. **Bukatu:** 00:06:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Zazpi urte zituela jaitsi ziren Agarre baseritik Loiolara; orduan, Martuteneko mojetara joaten ziren. Neba-arrebek ordura arte euskaraz egiten zuten, baina dena aldatu zen. Euskaraz egiteagatik arazoak zituzten: zigorrak, lagunik ez...</p>

Transkripzioa

- Zuk orduan euskeraz bakarrik jakingo zendun hizketan.
- Bueno, nik... beste ahizpak sei urtekin bazakin, bestiak bostekin´e bai. Baiño han Loiolan jeitsi giñanean, ba, aldameneko beste etxe batian falangista bat bizi zan eta, buoo, bueno, euskeraz ezin genun in. Ez ziun... Eta...
- Zigorrik-eta egoten zan?
- Bai, bai, bai.
- Euskeraz hitz egin esker, bai?
- Bai, bai. Eta lagunak... lagun gabe. Etxian egon bihar euskeraz iten bagiñun, etxian egon bihar! Eta erderaz iten bagiñun, ba, lagun pilla bat, leku guzitatik irtetzen zian lagunak.

4. Ama irrintzilari ezaguna

- **Erref:** DON-008/010
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:10:51. **Bukatu:** 00:13:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura

Laburpena:

<p>Bere ama, Primi Erostarbe, panderojole ezaguna zen, Oñatiko Araotz auzoan jaioa. Astoarekin herri batetik bestera mendiz joaten zen eta bakardade horretan ikasi omen zuen irrintziak botatzen. Bazuen irrintzi berezi bat, "berde" xamarra. Eta horregatik "amona berde" deitzen omen zioten. Goizaldi Dantza Taldean Lurdes Iriondo ezagutu zuen eta harreman ona omen zuen Xabier Lete eta biekin.</p>

Transkripzioa

- Baserrian bertan jotzen zun panderoa. Bere gauzak iten [zun] eta irrintziak´e bai ta. Baiño hori beak beti esaten zun Araotzen. Araotzen bea saiatu zan asko astuakin juten zanian mendi batetik... herri batetik bestera menditik juten omen zan astuakin. Eta han, bakar-bakarrik, mendian, irrintziak jo ta ke, irrintziak. Eta bere itzalakin dantza. Eta hola.

- Hola ikasi eben?

- Hola ikasi zun. Hola ikasi zun. Eta gero hemen Donostin, ba, jendeak entzuten [...]. Zea, Trinitadeko Enparantzan, urtero-urtero, estropada bukatu eta gero, jendia bazkaltzera, eta bazkaldu eta gero Trinitadeko Enparantzara, txapelketak ikustera. Eta beti... trikitixen txapelketak. Eta beti ama txapelduna gelditzen zan. Beti. Beti txapelduna. Amen irrintziak zoragarriak. Eta bat badaka iñork ez duna iten. Ez dakit entzun dezun zuk. Nik ez dakit nola esaten zun: "Heldu, heldu, heldu, heldu aurreko neska gazte horri gerri-gerri-gerritik eta gero pixkat beheroxiotik".

- Bai, hori irakurrita daukat.

- Bai? Bueno! Irrintzi horrekin txoratuta gelditzen zian jende guztia. Txoratuta, e!, jende guztia. Bai.

- Bai, gaiñera, bazeukan bere puntu berde... hola... txispa hori.

- Noski baietz! Jolin! "Amona berde" deitzen zioten askotan. Zu "amona berde" ze, e? Deitzen ziyoten askotan. Bai. Ordun nere amak... nola esaten da? Xabier Letekin... Xabier Lete, gogoatzen ze?

- Bai, bai.

- Bueno, Xabier Lete... Ama `Goizaldi´n sartu zen. `Goizaldi´tik deitu zioten eta Xabier Leten emaztea `Goizaldi´n dantza iten zun, Lurdes Iriondo. Lurdes Iriondo. Eta hoiek ezkondu zien ta, bueno, oso lagun onak izan zien amakin. Danak lagun onak. Bai.

5. Ama Txomin Eneako eta Martuteneko erromerietan panderojole

- **Erref:** DON-008/013
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:19:12. **Bukatu:** 00:21:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Txomin Eneako eta Martuteneko erromerietara joaten zen beraien ama, panderojole ezaguna baitzen. Ezin zen helduta dantzatu eta dena zen erromeria.

6. Panderojole autodidakta

- **Erref:** DON-008/017
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:26:07. **Bukatu:** 00:26:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Bere ama panderojole ezaguna zen, seguru aski bere gurasoei begira ikasi zuen. Taberna zuten eta tabernan jo eta ke aritzen ziren trikitia eta panderoa eskutan zutela.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-13

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com